

Xabierko lagun estimatuak:

Aurten ere, hurbiltzen ari gara Graziaren Bederatziurreneko eta 2025eko Xabierraldietako egunetara. Bederatziurrenaren aurtengo goiburuak, **Itxaropenaren erromesak**, dagoeneko ospatzen ari garen Jubileuak bezala, Jainkoarengana (eta Xabierrera) hurbiltzera gonbidatzen gaitu, bozkarioz eta itxaropenez.

Duela ia 500 urte, 1525eko udan, Frantzisko Xabierkoak, 19 urte zituela, agur esan zion bere etxeari, familiari eta lurrari, Parisko Sorbonara joateko. Agur horrekin hasi zuen bere erromesaldi berezia. Proiektu eta amets berriak zituen buruan, eta Jainkoak, Ignazio Loiolakoaren eta adiskidetasunean Jesusen lagun ziren lehen jesuita haien eskutik, amets kolektibo bihurtuko zituen: Jesusen Lagundia.

Lehen jesulagun haiek erromesak izan ziren. *Jaunarengan lagun* izanik egin zuten lehen erromesaldian Erromara joan ziren, Paulo III.a aita santuari baimena eskatzera, Lurralde Santura bidaiatu nahi zutelako. Ezin izan zuten, ordea, asmo hura gauzatu, Veneziaren eta Turkiaren arteko gerraren ondorioz. Handik gutxira, eta espero izan gabe, Frantzisko Ekialdeko lurretara abiatu zen, lur haiek ebanjelizatzen joatekoa zen lagun bat gaixotu zenean. Horrela hasi zen Frantziskok Indiako lurretatik barrena egin zuen erromesaldi handia, aniztasun politiko, sozial, kultural, erlijioso... handi baten erdian. Fede sendoko gizona, lagunak egiten jakin zuen; harreman sakonak eraiki zituen, hesiak hautsi eta zubiak eraiki, atsedunik gabe predikatu eta ospatu. Helburu ezin hobeak egun hauetan Xabierrera erromes zatoztenentzat ere. Aurki ditzazuela bidean fede beraren gainean anaitasuna eraikitzeko lagunak!

India utzi ondoren, Xabier Malaysiako eta Indonesiako lurretan ibili zen erromes. Mundu ezezagunak aurkitu zituen, eta arriskua eta bizi baldintza eta baldintza material gogorak izan bazituen ere, *poztasun espiritualeko, barne gozameneko eta kontsolamenduko udaberri* bihurtzen jakin zuen. Aurrerago, Japoniarantz itsasoratu zen, berriro ere erromes. Aukera guztiak aprobetxatzen zituen, bai itsasoan eta bai lehorrean, agintariekin solasean aritzeko, Berri Ona zabaltzeko edo era guztietako eztabaidak izateko. Frantzisko Xabierkoak helburu bera izan zuen beti, baita jazarpen eta gatazka uneetan ere: Berri Ona aditzera ematea.

Bere azken erromesaldik Txina misteriozura eraman zuen, handik abiatu zen Bizitzaren Aitaren etxera, 1552an. Horrela, inoiz hiltzen ez den maitasunaren azken lekukotza eman zigun, Jesusek, bere bidelagun handiak bezala. Eta erakutsi zigun bizitza eta heriotza nora begiratu adierazten digun zerumuga besterik ez direla, inoiz ibiltzeari ez uzteko.

2025ean, denok erromes garenez, Frantzisko Xabierkoaren sakontasunean aitortzen dugu bizitza erromesaldi gisa bizitzeko erakutsi zuen prestasuna eta Jainkoak hitz egiteko zuen gaitasuna, Hark adierazten zizkion tokietan.

Graziaren Bederatziurren hau eta bi Xabierraldiak *itxaropenaren erromes* gisa bizitzera gonbidatzen zaituztegu, gure Patroi Santuaren bizitzako urratsei jarraituz. Bereziki, Jaunari eskatzen diogu antzeman dezagula Xabierreko bidean. Erabil ditzagun egun hauek Jainkoarekin, lagun hurkoarekin eta sorkuntza guztiarekin dugun harremana berritzeko, Jubileuaren helburuekin bat.

Hartu agur bero bat. Eskerrik asko zuen otoitzarengatik eta oroitzapenagatik. Zuen zain gaude, *zuen etxean*,

Xabierko Santutegiko jesuitak eta laguntzaileak

*(...) surge tu luz, Cristo, y me envía, y me lanza...  
y no hay límites para hacer de tu promesa mi misión.  
Con Cristo en el corazón y el corazón en el horizonte, no hay fronteras, no hay confines.  
Solo Dios, mi esperanza. No hay fronteras, no hay confines; solo Dios, mi esperanza  
(Cristobal Fones jesuita txiletarraren abestia, San Frantzisko Xabierkoari buruzkoa)*



Informazio gehiago:

<https://www.castillodejavier.es/>

<https://javieradas.com/>

Graziaren Bederatziurrena martxoaren 4tik 12ra bitartean izango da. Lehenengo Xabierraldia martxoaren 9an izango da, igandea (eukaristia plazan 10:00etan) eta bigarrena, martxoaren 15ean, larunbata (eukaristia plazan 17:00etan).